

Floreagako ikasleek abestutako koplak

Santa Ageda bezpera da ta
hemen gatoz gu kantari
makila astinduz, lurra esnatuz
ta eutsiz ohiturari.

laz agindu genizun eta
hemen gara gu berriro
gure berri eman eta eskaria
eginez astiro-astiro

Floreagatik etorri gera
herriko udaletxera
herritar denon aterpea den
etxe hau bisitatzera

Guk badakigu poza ta kezka
sortzen dula gaztediak
zuek egon lasai oso jatorrak
dira_ azken belaunaldiak

Jator ta zintzo bete dugu guk
gure eguneroko lana
horregatikan diru eskean
lasai gatoz zuengana

Urte hauetan ikasi dugu
munduko txokoen berri
ta orain bisita egin nahi die (g)u
hamaika herri ederri

Diru eskean etorri gera
papera dugu nahiago
ta lasai egon dena izango da
ikasteko askoz gehiago.

Zuen laguntza guretzako da

Alkateak abestutako koplak

Beste behin ere ongi etorri
Santa Ageda bezperan
gogotsu geunden zuen koplak zain
Azkoitiko Udalean

Azkoitiarron ongizatea
bermatzea nahi badugu;
neska ta mutil zuen guztion
laguntza beharko dugu.

Guk gogoia ta esperientzia
gaztetasuna zuena:
indarrak batuz lortu daiteke
herriarentzat onena.

Zuen burua ordea dago
ikasbidaian pentsatzen;
horretarako ibili gara
paper txiki hauek biltzen.

Aprobetxatu erakusteko
Azkoitia munduari:
Denan gainetik ongi pasa ta
postala bidali guri.

Ohitura zahar bezain polita
dezute zuek mantentzen:
eskerrik asko eta jarraitu
horrela denok alaitzen.

oso-oso egokia
ikasbidaitik bidaliko deu
zuentzako argazkia.

Eskerrik asko limosnagatik
jator portatu zera zu
hurrengo urtean zalantza gabe
hementxe izango gaituzu.